



Jabier Gordo errefuxiatua espetxeratu egin du Espainiak

BIDEGOIAN ▶ Mexikon bizi zen duela 15 urte; hango poliziak atxilotu eta Auzitegi Nazionalaren esku utzi zuen atzo goizean

EZJAKINTASUNA ▶ Soto del Real espetxean dago; senideek haren berriren zain jarraitzen dutela adierazi diote HITZARI ▶ 5

Dagoeneko martxan da estraineko Kultur Trukea, elkarrengandik ikasteko

IBARRA ▶ Jende asko elkartu zen inaugurazio ekitaldian; etzi arte, pintura eta argazki erakusketak, ipuin kontaketa eta bideoa ▶ 6

LEITZA ▶

Xalto sariketako finalean da Migel Mari Elozegi

Etzi ariko da lehian, Goizuetan, beste 9 bertsolarirekin ▶ 7

TOLOSA ▶

Adolfo Canillasen 'Quizas el bosque' lanari saria

Txotxongilo antzerkirako idatzien II. Lehiaketan ▶ 3

I. TERRADILLOS



azkar ibili!

LG F2300 + 100€ = 59€
deietan

Argazki-kameraduna • JAVA jokoak deskargatzeko aukera • GPRS • 65.000 koloreko pantaila • Azkar ibili, bukatu egingo dira eta!

Informa zaitetz 900 840 840 zenbakira deituta edo hurbilen duzun Euskaltelen saltokian.

Euskaltel

Prezioa Euskaltelen Leihoo-Harbitzailearen produktuen bidezkoa da. Sestiponak 2005/12/28 arte bako da, 1000 deituen ITSE abizitatearekin eta 2005/11/30 baino lehen 5000 argazkiarekin. Gehienez 3000 irudiak.

ZIZURKIL ▶

Herriko kirolarien lana herriari erakusteko xedez, Kirol Asteburua

Bihartik igandera, IX. Gaur Krosa, omenaldia, proiektzioa... izango dira ▶ 4



Lopez, Lazkano eta Larrea, atzo, aurkezpenaren. I. GARCIA

KULTURA ▶

Aisialdian euskaraz egiteko

Euskarazko produktuen katalogoa aurkeztu zuten atzo; besteak beste, musika, filmak, aldizkariak, liburuak eta jostailuak biltzen ditu haur eta gaztetxoentzat



Euskara zinegotzi Onintza Lasak eta Euskara teknikari Iñaki Azaldegik aurkeztu zuten katalogoa, atzo. i. e.

XEHETASUNAK ▶

Euskarazko produktuen katalogoa aurkeztu zuten atzo Tolosako udallexean. Honako ezaugarriak ditu:

PRODUKTUAK

Nori zuzenduta. Haurrei eta gazteei zuzendutakoak dira: Haur Hezkuntzatik hasi, eta DBH 3. maila artekoentzat.

Atalak. Musika, filmak, aldizkariak, liburuak, informatika, jostailuak eta jokoak aurki daitezke katalogo horretan:

▶ Musika: haurrentzako (Oskorrinen *Doktor Do Re Mi*; Betizuren *Gazteok*; Poxpola, Mokolo eta Konpainiaren *Run run* eta *Zorionak* eta Pirritx eta Porroben *Maite zaitut*, besteak beste) eta gazteentzako (Sorkunen *Duna*; Anariren *Zebra*; Berri Txarriren *Jai*. *Musika. Hil* eta Ken 7ren *Gelditu denbora*, esaterako).

▶ Filmak: 3 urtetik gorakoei zuzendutakoak (*Olentzero*, *Hartz Txiki 1-5...*); 4 urtetik gorakoentzat (*Hirukiak*; *Lurraren bihotzeraino* eta *Altxorren bila...*) eta 6 urtetik gorakoentzat (*Betizu*, *izar artean*; *Asterix eta Kleopatra...*)

▶ Aldizkariak: *Gaztetxulo*, *Pika*, *Entzun*, *Luma*, *The Balde*, *Ipurbeltz...*

▶ Liburuak: Lehenengo irakurketak (*Ez dut irakurri nahi!*, *Olentzero New Yorken*,



Itxura hauxe du katalogoak. HITZA

Amonaren etxera noa...); 6 urtetik aitzinera (*Ahulerio*, *Nire jaioterriko jendea*, *Gorputz osorako poemak...*); 8 urtetik aitzinera (*Piraten eskola*, *Nola zuzendu andereño gaizto bat*, *Letra biziak...*); 10 urtetik aitzinera (*Gaur egun handia da*, *Garmendia errege*, *Ipuinen zorra...*); 12 urtetik aitzinera (*Manolitoaren sekretua*, *Jara*, *Bikiak eta bikoteak...*); 14 urtetik gorakoentzat (*Pololoak*, *Lapurren buruak*, *Eguzki beltzaren sekretua...*) eta gurasoentzat (*Aizak eta aizan elkarrekin dantzan*, *Geure ipuinak*, *Atxiki sekretua...*).

▶ Informatika: 3 urtetik hasi eta 14 urte artekoentzat daude. Esate baterako: *Boga, boga*; *Xango*, *Puzletek*, *Mixi eta bere lagunak*, *Animaliak...*

▶ Jokoak eta jostailuak: Handia da eskaintza adin ezberdinetako haurrentzat eta gazteentzat. Katalogoan aurki daitezke, adibidez, Euskal alfabetoa (4-7 urte); Aitor kontalaria (6-9 urte); ArdiBidez (7 urtetik aitzinera); Euskopoli (8 urtetik aitzinera); Letra jokoak (3 urtetik aitzinera); Urdaibai puzzlea, Nairobitarra (8 urtetik aitzinera...), Auskalo! Euskal Tribiala (10 urtetik aitzinera)...

ANTOLATZAILEAK

Udalak. Azkoitia, Azpeitia, Buruntzaldea (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), Deba, Debagoiena (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñati), Eibar, Elgoibar, Oarsoaldea (Errenteria, Lezo, Oartzun eta Pasaia), Sorluze, Tolosa, Urola Garaia (Ezkio-Ixaso, Legazpi, Urrebu eta Zumarraga), Urola Kosta (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia), Villabona, Zestoa eta Zizurkilgo udalek egin dute.

Garapen agentzia. Goierrikoa: Goieki (Altzaga, Arama, Atun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain). **Laguntzailea.** Gipuzkoako Foru Aldundia.

IRATXE ETXEBESTE

«Durangoko Azoka eta Eguberriak gainean ditugu, eta beharrezkotzat ikusten genuen euskarazko produktuen katalogoa herritar guztiei orain aurkezte». Gisa horretara eman zion atzo hasiera Tolosako Udaleko Euskara zinegotzi Onintza Lasak, besteak beste, musika, filmak, aldizkariak, liburuak eta jolasak biltzen dituen katalogoa aurkezteko agerraldiari. Tolosako Udalak Euskal Herriko beste hainbat udalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean eman berri du argitara euskarazko produktuen katalogoa, eta udaletxean aurkeztu zuten atzo.

Katalogoan agertzen den eskaintza oparoa da oso: Haur Hezkuntza eta DBH 3. maila arteko haurrei eta gazteei zuzenduta daude produktuak. Sustatzaileen hitzetan, bertan agertzen diren hainbat produktu «betikoak» dira; beste batzuk, berriz, berriak. «Katalogo honen bitartez, euskaraz jolasean, ikasten, hezitzen edo gozatzeko lagunduko dizuten produktuen berri ematen dizuegu», adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek: «Merkatuko alerik interesgarrienak eta berrienak erakusten ahaleginduta gara; baita horien gaineko informazio zehatza ematen ere: egilea, prezioa, ezaugarriak...».

Euskaraz bizitzeko bidea

Sortzaileek adierazi dutenaren arabera, jostailu, musika, informatika, liburu, aldizkari, bideo eta aisirako beste hainbat produkturen merkatu zabalean «euskarazko nabarmeneko ahalegina» da euskarazko produktuen katalogoa. Bide horretan, «benetan euskaraz bizi nahi badugu euskaraz aukeratu beharko ditugu aisirako produktuak ere», zioen atzo Tolosako Udaleko Euskara teknikari Iñaki Azaldegik. Hala, Tolosako ikastetxe guztietan banatuko dituzte datozen egunotan. Zehazki, 2.500 ale presatatu dituzte herrian banatzeko. www.katalogoa.org webgunean ere kontsultatu ahal izango dela iragarri dute. Hala ere, Euskal Herri osora hedatuko dute katalogoa lehendabizikoz, eta 220.000 ale kaleratuko dituzte horretarako. Bihar egingo dute nazio mailako aurkezpena, Iruñean.

GIZARTEA ▶

Emakumeen aurkako indarkeriari buruz, bihar

Topaketa izango da Ero-Etxe elkartearen; Ibon Arrizabalaga ariko da hizlari bertan

I. ETXEBESTE

Azaroaren 25eko egunaren harira, hau da, Emakumezkoen Indarkeriaren Aurkako Egunaren ildotik, hain zuzen ere, topaketa izango da bihar Ero-Etxe elkartearen. *Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean* izenburupean ariko da Ibon Arrizabalaga hizketan, 19:30ean hasita. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaineko masterra egina du Arrizabalagak.

Tolosako Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuek antolatutako ekimena da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ARETO FUTBOLA ▶

Gehiago merezi arren, hirugarren porrota jarraian Hegoalde

Itxura ona erakutsi zuen taldeak Gironella-ren aurka; hala ere, 2 eta 1eko emaitzarekin esku hutsik bueltatu zen etxera



2005-06 denboraldiko jokalariek eta entrenatzaileak. HITZA

ERREDAKZIOA

Hegoalde hiru porrot jasan ditu jarraian, eta sailkapeneko atzealdeari begira dago orain, jaitziera postuetatik bi puntura. Joan zen larunbatean galdu zuen azkena, Bartzelona probintziko Gironellan. Aurreko partiduen aldean, ordea, itxura asko hobetu zuen taldeak, defentsan batez ere.

Neurketa oso parekatua izan zen uneoro. Bi taldeak defentsan sendo aritu ziren, eta erasoan pazientziarekin jokatu; baina, aldi berean, aukera gutxi sortuz. Lehen bi golak elkarren segidan gertatu ziren, eta horrek ere lagundu zuen parekotasunean. Ane Larrañagak denboraldiko bere lehen gola egin zuen.

Azken minutuetan, ordea, neurketako epaileek, Sergio Sanchez eta Jose Hernandez kataluniarrek, nabarmen egin zuten etxeko taldearen alde, eta horrek hautsi zuen neurketa. Gironellaren bigarren gola ez zen legezkoa izan. Baloia kontrola egiterakoan eskuaz

baliatu zen Clara Costa, eta hala sartu zuen gola. Hegoaldeko jokalariek eta entrenatzaileek protesta egin zieten epaileei, baina haiek legezko ez zen ezer ez zutela ikusi adierazi zieten. Larrea entrenatzailearen esanetan, «epaileek argi eta garbi ikusi ahal izan zuten falta», baina ez zuten eman nahi izan. Eta hala galdu zuen Hegoalde. Erabaki horren baitan, eta erakutsitako jokoaren arabera, berdinketa gutxienez merezi zuten tolosarrekin, baina esku hutsik itzuli ziren etxera.

Aurrerantzean emozio faltarik ez dute izango. Lehen itzulia amaitzeko sei jardunaldi falta dira, eta egutegiaren zatirik gogorrenetako datorkio gainera Hegoalderi, sailkapenean okerraren dagoen unean. Hasteko, datorren larunbatean, Usabalen, Tecnocasa Mostoles hartuko du. Madrildarrak sailkapeneko hirugarrenak dira, eta pasa den jardunaldian UCAM Murcia ahalguztiduna mendean hartu zuten etxean. Eguberrietako oporren aurretik Futsi

Navalcarnero liderra (kanpoan) eta Valladolid (etxean), izango dira aurkariak. Urtrarrilean, berriz, Murcia sailkapeneko bigarrena eta iaizko Kopa txapeladuna (kanpoan), Zaragoza (kanpoan), eta Femesala Elche (etxean) sailkapeneko laugarrena eta iaizko Liga txapeladuna izango dira. Ikasturte erdiko azterketa gogorrek izango dira Hegoaldekoentzat.

Arana eta Aldezabal bueltan

Albiste onik ere izan da azken astean. Aurreko denboraldietan taldeko jokalaririk oinarritzikoentakoak izan diren Nerea Arana atezain errioxarra eta Itziar Aldezabal Pasai Antxoko euskarria itzuli egin dira.

Aranarena behin behineko itzulera izango da oraingoz; taldean Idoia Manique da atezain bakarra eta hark jokaterik ez duenean —aurreko larunbatean bezala—, leku hori betetzeko prest agertu da. Aurten Akaba Bera Bera eskubaloitaldearekin entrenatzen ari da, eta Donostiako taldearen baimena jaso du hori egin ahal izateko. Hegoalderekin lau denboraldi osatu zituen Aranak duela bi urtera arte.

Aldezabalek, bestalde, aurreko denboraldi amaieran areto futbolaz uztea erabaki zuen, baina berriz ere garra piztu zaio. Taldeko zuzendariak eta entrenatzaileek pozarren hartu dute taldera itzultzeko haren eskaera; aurretik Hegoalden zazpi denboralditan aritutakoa da, eta azken urteetan taldeko kapitaina bera zen.

MUSIKA ▶

Primoz Parovel akordeoi jolearen kontzertua gaur

Musika Eskolan ariko da esloveniarrak, 19:00etan, Hsin Ying Chen sopranoarekin

N. LATABURU

Eduardo Mokoroa Musika Eskolako areto nagusiak Primoz Parovel akordeoi jolearen kontzertua hartuko du gaur, 19:00etatik aurrera. Harekin batera, Taiwango Hsin Ying Chen sopranoa ariko da. Biek ala biek egitarau zabala eskainiko dute. Espainiako abesti herrikoiak eta italieraz garatutako beste hainbat, esaterako.

Primoz Parovel esloveniarrak Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren saria irabazi zuen iaz. Hiru kontzertu eskainiko ditu Espainian. Eta Euskal Herrira, Tolosara

etortzeko gonbita onartu du, sopranoarekin batera, eta oso kontzertu bitxia eskaintzea espero dute. Izan ere, esloveniarrak eta txinatarrak hemengo kantuak abestuko eta joko dituzte.

Ospe handiko musikariak dira biak. Parovelek komposatzaile desberdinekin lan egin izan du: Rojko, Lim, Laplante, Culc, Avsec... European, Taiwanen eta Kanadan eman ditu kontzertuak. Baita Esloveniako Orkestra Filarmonikoarekin ere, bakarlari gisa. Hsin Ying Chenek, berriz, 2001ean Taipeiko German Lieder Lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen, besteak beste.

23. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA ▶

Txotxongilo antzerkirako idatzien II. Lehiaketa

Adolfo Canillas egilearen 'Quizas el bosque' lanak jaso du lehendabiziko saria

N. LATABURU

Haurrei zuzendutako txotxongilo antzerkirako idatzien II. Lehiaketa burutu dute Titirijai 05-eko egitarauaren barruan. Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren laguntzarekin antolatutako lehiaketaren finalisten eta irabazlearen izenak iragan igandean eman zituzten jakitera.

Epaimehai lanetan Lola Lara, Enkarni Genua, Juan Martin Elexpuru, Roberto Herrero eta Jose Mari Iturralde aritu dira. Guztira, 21 idatzi

jaso zituzten, eta bost izan ziren finalistak: *El principe zapatero*, *Mia*, *Quizas el bosque*, *Untzi saltsa* eta *Viaje del papa de winnie*.

Batetik, ipuinaren orijinaltasuna eta bere hizkuntza poetikoa eta zuzena delako eta, bestetik, proposamen desberdina delako haurrei zuzendutako txotxongilo antzerkirako idatzien II. Lehiaketaren irabazlea *Quizas el bosque* lana izendatu dute. Bere egilea Adolfo Canillas Sacristan da, Arabako Armentia herriko bizilaguna.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ZIZURKIL ▶ KIROL ASTEBURUA

Herriko kirolarien lana herriari erakustea du helburu Kirol Asteburuak

Atzo egin zuen Udalak aurkezpena; bihar hasi eta igandera arte iraungo du eta, besteak beste, IX. Gau Krosa eta herriko kirolariei omenaldia antolatatu dituzte

IMANOL GARCIA

«Herriari kirola egiten dutenen lana erakustea, haien lana herriari erakustea da Kirol Asteburuaren helburua», esan zuen Aitor Lopez Zizurkilgo Kirol Batzordeko lehendakariak atzo eguerdian egindako aurkezpenean. Marian Lazkano alkatea izan zuen ondoan Kirol Asteburuaren nondik norakoa azaltzean. Bihar hasi eta igandera arte iraungo duen Kirol Asteburuak egitarau parte-hartzailea du, hainbat ekitaldirekin. Baina izango da ere jendea erakartzeko hitzaldirik. Bihar, hain zuzen ere, Juanito Oartzabal eta Juan Vallejo himalayismoari buruz ariko dira.

Etzi, aurten lorpen azpimarragarriak egiten dituzten kirolari zizurkildarrak omenduko ditu Udalak. Ehizan, Modos Iraola Espainiako txapelduna eta hirugarrena Munduko Ehiza Xeha Txapelketan, eta Fermin Mourzena. Halterofilia luzea da zerrenda: Jon Sasiain, bederatzigarren Europako Sub 17 Txapelketan eta Espainiako Sub 17 Txapelketako irabazlea; Ekaitz Kortajarena, Espainiako txapelduna junior mailan; Teddy Martinez, hirugarren Espainiako Txapelketan junior mailan; Jon Tecedor, Espainiako txapelduna; Lourdes Goros-

tegi, Espainiako txapelduna; Igor Sasiain, Espainiako txapelduna Sub 15 mailan; Jon Ander Irirarte, Espainiako txapelduna Sub 15 mailan; Mikel Quintana, Espainiako Sub 15 mailan bigarren; eta Iker Hernandez, Espainiako sub 15 mailan bigarren. Atletismoan, Joxean Alberdi, Beteranoen Munduko Txapelketan hamargarren, eta Tamara Lozano, Euskadiko txapelduna pistako 3.000 metroan eta Euskadiko Kros Txapelketan bigarren. Herri kirolan, Juan Manuel Erasun, Euskal Herriko sega txapelduna; Joseba Otaegi aizkolaria eta herriko Xiba Taldea, bigarren Herrien Arteko Txapelketan. Azkenik, Gipuzkoako Zaldi Lasterketan bigarren gelditu den Asier Mujika. Ekitaldiaren hasieran zenbait kirolariekin mahai ingurua egingo dute, eta ondoren guztiek diploma bana jasoko dute. Ekitaldiaren ostean afaria eskainiko diete Urkamendi elkarteak.

Ostiralean ere Kirol Asteburuako Pilota Txapelketaren kanporaketak jokatu dira. Igande eguerdian izango dira finalak. Villabonako Behar-Zana elkarteak antolatzen du txapelketa. Izan ere, elkarte horretan Villabonako eta Zizurkilgo haurrak aritzen dira.

Larunbata Hamabi orduz ki-



Aitor Lopez Kirol Batzordeko lehendakaria, Marian Lazkano alkatea eta Ainhoa Larrea teknikaria, Kirol Asteburuaren aurkezpenean. i.g.

rolean Zizurkilzen izeneko egitasmoa burutuko da. Goiz eta arratsalde, haurrek herri kirolletan, pilotan, futbolean eta halterofilian aritu ahalko dira.

IX. Gau Krosa

Ekitaldi garrantzitsu batek ere bere tarte izango du larunbatean. «Tradizio handia hartu duen Gau Krosa Kirol Asteburuaren baitan sartzea pentsatu dugu, egitarau guztia indartzeko», azaldu zuen Lopezek. IX.

edizioa izango da, eta aurten parte-hartzaile guztiei kamiseta oparituko diete. Gainera, kirolari guztien artean bederatzita taberna-jatetxe oparitutako bi lagunentzako afariaren marka—22 minutu eta 34 segundo—ontzen duenari sari berezia emango diote.

Helduen eta gazteen (1991ean eta ondoren jaiotakoak) mailak izango dira, eta lehen hirurak sariak jasoko dituzte. Dinosaurio saria ere ba-

EGITARAU ▶

BIHAR

19:30. Juanito Oartzabal eta Juan Vallejo *Himalayismoa atzo eta gaur* gaiari buruz ariko dira. 14 *ochomiles* ikusentzunezkoa ere eskainiko dute.

ETZI

19:00. Kirol Asteburuako pilota txapelketaren kanporaketak, Intxaurren. 20:00. 2005eko Zizurkilgo kirolariei omenaldia, Abulondo kultur etxean.

LARUNBATA

Hamabi orduz kirolean Zizurkilzen.

11:00. Herri kirolak 5-8 urte bitartekoentzat, Intxaurren. 12:00. Pilota txokoak 9-12 urte bitartekoentzat. 13:00. Hamaiketako eta opari banaketa. 15:30. Futbol partidak Otaño eskolan. 17:15. Halterofilia Otaño. 18:00. Merienda eta opari banaketa. 22:30. Zizurkilgo IX. Gau Krosa.

IGANDEA

12:00. Intxaurren frontoian pilota partidaren finalak.

natuko diote parte-hartzaile zaharrenari. Proba 22:30ean hasiko da eta izen-ematea ordubete lehenago irekiko da. Joxe Arregi plazan. Gazteek 2,5 kilometro burutu beharko dituzte eta helduek 7,5 kilometro.

Bestalde, Marian Lazkano alkatea eskerrak eman zizkien Udalaren izenean kirol elkarte eta kirolari guztiei, «bai urtean zehar egiten duten lan guztiagatik, bai beren laguntza beharrezkoa delako Kirol Asteburu antolatuta eta gauzatzeko».

iragarki laburrak ▶



Aduna. 608 m2-ko pabilioa alokairuan, garabi-zubiarekin, bulegoak jarrita. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Albiztur. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Hiru solairu, bakoitza 200 m2-koa. 35.000 m2-ko lur-saila. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Asteasu. 2 solairuko pabilioa salgai edo alokeran, 1050 m2, eta 250 m2-

ko solairuardea, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Beasain. 45 m2 erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 100 m2-ko etxebizitza, berritua, trasteleku handiarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m2-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Irura. 2 logelako etxebizitza, eraiki berria, garajea aukeran.

Legorreta. 3 hektareako lursaila, 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Eraikuntza berriko 14.000

m2 pabilioi salgai, 920 m2-ko azken moduluak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Segura. Eraikitzen ari diren erantsitako 14 balet, 297.500 eurotik hasita. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m2-koa. Kanpoaldea, igogailuarekin eta trastelekuarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza, berritua. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Apatxaerrek, duplex berritua, garajearekin eta lursailarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean

azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m2 erabilgarriak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelatako aukera. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m2-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alliri kalean, 105 m2-ko etxebizitza. Garajea eta lorategia. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alokarako etxebizitzak ere baditugu, zonalde eta azalera ezberdinetakoak. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

BIDEGOIAN ▶ POLITIKA

Javier Gordo errefuxiatu goiaztarra espetxean sartu du Espainiako Auzitegi Nazionalak

Mexikoko poliziak atxilotu zuen herenegun, eta Guardia Zibilaren esku utzi; Soto del Realen sartzeko agindua eman zuen Espainiak «ETAko kide izatea» egotzita

INIGO ASENSIO

Javier Gordo Castro errefuxiatu goiaztarra atxilotu egin zuen herenegun Mexikoko poliziak, eta Guardia Zibilaren esku utzi. Madrileko Barajas aireportura heldu zen atzo goizean, eta Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman zuten. Espainiako epaileek Gordo espetxeratzeko agindua eman zuten atzo eguerdian; harrezkero Soto del Real kartzelan dute, «ETAko kide» izatea egotzita.

Mexikoko Ikerketa Federal Agentziak (AFI) atxilotu, eta Madrileko eraman zuen atzo 09:00etan. Mexikoko Fiskaltzak aipatu duenez, «baimenik gabe eta legez kontrako egoeran» zegoelako kanporatu dute Gordo handik. Mexikoko San Luis Potosi herriko bere etxean atzeman zuen Mexikoko migraziozko poliziak; handik Mexiko DFera eraman, eta zuzenean Espainiaratu zuten. Madrigo Entzutegian jakinarazi zioten 1988ko sumario batengatik ETA erakunde armatuarekin kolaborazioa leporatuz jarri zioten 6 urteko sententzia eta zuzenean sartu zuten Soto del Realeko presondegian. Orain



Jabier Gordo errefuxiatu goiaztarra. HITZA

15 urte egin zuen ihes Euskal Herritik. Ezarri zioten zigorra 2006ko otsailean preskribitzen zen.

Askatasuna erakundeak gogor salatu du Javier Gordoren kanporatzea. «Espainiako agintariak bultzatzen duten bide errepresiboari kolaborazioa eman diote Mexikoko agintariak. Orain arte 20 baino

gehiago izan dira Mexikok egin dituen euskal herritarren kanporaketa ilegalak; estradizio bat eta beste sei euskal herritar Mexikon 2 urtez espetxeratu ditu euren estradizioaren inguruan Auzitegi Gorenak hartzen zuen erabakiaren zain».

Kanporaketa horiek «inongo prozedura judizialik gabe» egindakoak direla, eta, kasu

batzutan, kanporatutako iheslari politikoei Guardia Zibilaren eta Espainiako Poliziaren eskutik tortura salaketak egin dituztela esan du Askatasunak. Ildo horretatik, kezka agertu du Gordoren egoeraren inguruan.

«Gertaera honekin garbi dago estatuak bide errepresiboaren aldeko apustua indartzen ari direla eta herri honetako eragile politiko, sindikal, sozial eta ekonomikoak hainbestetan aldarrikatzen ari diren gatazkaren konponbiderako bidea oztopatu baino ez dutela egiten», salatu du Askatasunak. «Euskal Herrian bizi dugun aldaketa giroan, marko juridiko zaharkituak eraldatzeko prozesuak abian direla, estatuak euskal iheslari politikoko jazaritzeari uzteko exijitzen diegu, Mexikon, Uruguain, Venezuelan, Britainia Handian... diren euskal iheslari politikoen aurkako jazarpenarekin amaituz batera, gatazka politikoa zein armatua gainditzeko bidean urratsak eman ditzaten».

ORENDAIN ▶



Jesus Garmendia. HITZA

Garmendiak Presidente Kopa irabazi du berriro

I. ASENSIO

Jesus Garmendia zaldun orendaindarrak berriro irabazi zuen Presidente Kopa joandako igandean. Madrilen jokatu zen proba hau, Espainiako Txapelketaren ostean dagoen estatu mailako proba garrantzitsua da. Bere behorrik, Malice-k, denboraldi guztia min-hartuta pasatu duen arren, azken asteetan sendatu eta entrenatzen aritu ondoren izugarriko txapelketa burutu zuen. Probak zituen bi ibilbideak oztopo bakar bat bota gabe burutu zituen eta horrela, garaipena lortu zuen, hain garrantzitsua den txapelketa honetan.

Senideek Gordoren berrien zain darraite

Goizean, atxilotetaren berri izan eta HITZA senideekin harremanetan jarri zenean, Javier Gordoren gurasoek eta anai-arrebek ez zuten oraindik gertatutakoaren berririk. Egoerak guztiz ezustean harrrapatu ditu. Mexikon errefuxiatuta zegoen anaia atxilotu, Espainiara bidali, Espainiako Auzitegi Nazionalak kartzeleratu eta beraiek ezer jakiterako Soto del Real-en zegoen. Ordurako eguerdiko ordu biak ziren ia, eta Gordoren anai-arrebak berria ezagutu bezain laster Amnistiaren Aldeko Mugimenduko abokatuarekin kontaktuan jarri ziren. Orduan izan zuten gertatutakoaren informazio zehatzagoa, nahiz eta Javierrek hitz egitea lortu ez.

Atxilotuaren anaiak, Pedro

Gordok HITZARI jakinarazi dienez, Javier 1986ean kondanatu izan zen 6 urteko kartzela zigorrera. Fiantzapean aske irten zuen arren, bigarren epaiketa batek 15 urteko kartzela zigorra ezarri zion.

Orduz geroztik errefuxiatuta izan da eta bere zigorra datoren urteko otsailean ahitzen zen. Orain zeri heldu ez dakiela dago familia. Soto del Real espetxera deitzen aritu diren arren, ez dute bertako inorekin kontaktuan jartzerik izan. Printzipioz Gordok espetxean sartzean bi minutuko deia egiteko aukera izan beharko zukeen arren, erredakzio hau itxerakotan, familiarik ez du zuen artean bere deirik jaso. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko abokatuarekin hitz egin duela badakite, haiak konfirmatu baitiote fami-

liari Javier espetxeratu dutela. Asteburu honetarako bisita baimena lortzen ari dira, baina bere anaiak onartu duenez, «interesgarria litzateke bertara joan baino lehen harekin hitz egitea, nola dagoen jakitea lasaigarria litzatekeelako, eta beharko dituen zenbait gauza eraman ahal izateko».

Berarekin harremanetan jartzeko etengabeko saiakeran ari diren arren, badakite ez dela lan erraza izango. «Berria jakitean jakinarazi digute zaila izango zela berarekin hitz egin ahal izatea, baina guk oraintxe egin dezakegun bakarra da pazientziak hartu eta itxarrotea. Hemendik asteburura bitartean gauzak argiago izango direla espero dugu», aipatu zuen Leire Gordo, espetxeratutakoaren ilobak.



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

GANDIAGA TOPAGUNEA, ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

“Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza” ERAKUSKETA

HONAKO EGUNETAN ZABALIK:
Azaroak 19, 20, 26, 27
Abenduak 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11

ORDUTEGIA:
11 etatik 14:00etara
eta 15:00etatik 18:00etara



IBARRA ▶ KULTURA

Abiarazi dute estreinako Kultur Trukea

Jende andana izan zen sarrerako ekitaldian; etzi amaituko da

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun Benito Izagirre kultur etxean egin zen ekitaldi bereziarekin eman zioten hasiera Ibarako Kultur Trukeari. Dantza saioaren ostean, Chelo Romeo Ibarako alkateak hitz egin zuen; gustura azaldu zen, eta herritarrak gonbidatu zituen antolatutako ekitaldieta. Bestetik, Ibarra Sa- harako Techla herriarekin anaituta dagoela kontuan hartuta, Saharako Fronte Polisarioko ordezkari Badadi Mohamed-Moulud izan zen ekitaldian; Saharako egoeraz jardun zuen, eta esker hitzak izan zituen Ibarako herriak eskaintzen duen laguntzagatik. Bestalde, lunch-arekin hasi aurretik, Helena Orcoyen soprano ibartarraren bi abestiez gozatzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek.

Ostirala arte askotariko ekitaldiak izango dira aurten estreinakoz antolatutako Kultur Trukearen harira.

EGITARAUA ▶

GAUR

Pintura erakusketa. Sükrü Karakus, Ingrid Buchwald, Rosy Revelo eta Enrique Velazquez artisten pintura erakusketa, Ibarako Kultur Etxean, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

BIHAR

Argazki erakusketa. Ibarako, Saharako eta Ibarako (Ekuador) argazkien erakusketa, Kultur Etxean, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.
Ipuin kontaketa. Maite Frankoren eskutik gaztetxoek zuzenduriko saioa, erabilera anitzeko aretoan, 17:30ean.

ETZI

Bideo emanaldia.

Ekuadorreko toki turistikoek buruzko bideoaren emanaldia Kultur Etxean, 19:00etan.



Jende ugari izan zen herenegun Ibarako Kultur Etxean egin zen ekitaldian. I. TERRADILLOS



Helena Orcoyen ibartar sopranoa. I. TERRADILLOS



Badadi Mohamed-Moulud. IÑIGO TERRADILLOS

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Sailkapeneko lehen postuetara gerturatzen ari da areto futbol taldea

1-5eko emaitzarekin hartu zuen mendean Basauriko Soloarte

ERREDAKZIOA

«Partida bikaina» Basauriko kiroldegian Ibarra areto futbol taldeak eta Soloartek jokaturikoa; izan ere, bi taldeek multzoko indartsuenetarikoa direla erakutsi zuten; hala azaldu du

Ibarra-koen prentsa arduradun Jose Manuel Tobiasek. Eta 1 eta 5eko emaitzarekin Ibarra-koak garaile izan baziren ere, neurketa gogorra izan zela eta ia azken unerarte ez zela erabaki esan beharra dago.

Ibarra-koen nagusitasunare-

kin hasi zen norgehiagoka, eta hirugarren minuturako aurretik jarri ziren, Pradosek eginiko golaren ondorioz. Bizkaitarrak, bitartean, saiatu ziren behin eta berriro, baina ibartarren defentsa indartsuaren aurrean ez zuten etekinik ateratzea lor-

tzen euren jokaldiei. Horrela, 12. minutuan Maurok hasi eta amaitu zuen jokaldian, 0-2 jarri zuten markagailua ibartarrek. Izan zuten gola egiteko beste aukerarik, baina azkenean emaitza horrekin iritsi ziren atsedenaldira. Harmailetan, Ibarra-koen zaleak gustura zeudela esan daiteke, partida Ibarra-koen esku ikusten baitzuten.

Bigarren zatian, Soloarte partidari buelta emateko prest irten zen kantxara, eta erritimo bizia jarri zuen. Hala ere, Ibarra-koen defentsak irmo jarraitu zuen hutsik egin gabe; Zabalo atezainak ere hainbat geldiketa garrantzitsu egin zituen.

33. minutuan, ibartarren harriurarako epaileek Ibarra-koen aurkako penaltia ikusi zuten, eta Soloartek, aukera paregabea aprobetxatuz, gola egin zuen. 1-2koa zen. Une horretan urduritasuna areagotu egin zen, baina handik 3 minutura lehengora bueltatu zen egoera, Pradosek Labakaren paseaz

SOLOARTE ▶ 1

IBARRA ▶ 5

Hasierako bostekoa. Igor Zabalo; Unai Labaka; Hautsi Izagirre; Ustaritz Errondosoro; David Prados.
Aldaketak. Sinoe Sanz; Lander Camio; Mauro Ayerza.
Bajak. Xabier Blanch; Fernando Ayerza; Pool.
Zigortuak. Cesar Roca.

baliatuz gola egin zuenean. 4 minutu baino ez ziren geratzen emaitzeko, eta Ibarra-koen garaipena gero eta gertuago nabari zen. Soloartek jokalaritatezaina ateratzea erabaki zuen orduan. Ez zen aukera ona izan, Pradosek eta Hautsik gol bana egin baitzuten jarraian. 1-5ekoarekin amaitu zen azkenean partida. Ezin hobeto ari dira ibartarrak, astetik astera lehen postuetara gerturatzen ari baitira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Kafetegia. Neska bat behar da kafetegirako. Arratsalde, larunbata izan ezik. Igandea jai. Deitu 943 67 04 46 telefono zenbakira.

SALGAI

Motorra. KTM EXC 250

endurokoa. 2005ekoa. Matrikulatuta. Egoera onean. Deitu 618 254 960 telefono zenbakira.
Autoa. Renault Space. Motorra 2.200 DCI. 2001ekoa. Deitu 649 89 98 03 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Eskualdean gertatutako berriak sartzeko aukera duzu webgunean, *Zeuk idatzi*-n. Animatu eta sartu zure berria denon eskura egon dadin. ▶

BERTSOLARITZA ▶

Etzi, Xalto sariketako finalean izanen da Migel Mari Eloseg

Goizuetan izanen den saioan, bertso afaria tarteko, 9 bertsolari lehiatuko dira; Riaño eta Elizasu ez dira sailkatu



Lakuntza kantari, Leitzako azken agurrekoan, besteak beste, Soto (ezk.), Eloseg eta Saragueta (esk.) sailkatuak tartean direla. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Leitzan egin zen aurreneko saioa hilaren 19an, eta Julio Sotok eskuratu zuen finalerako zuzeneko txartela; Erratzun egin dute bigarren hilaren 26an, Michel Makeo bidarraira garaile ateraz. Bi saioak eginda, Xalto Bertso Sariketako finalisten zerrenda ezaguna da, eta Migel Mari Eloseg leitzarra tartean da.

Erratzuko saiora ere «bertsozale asko» bertaratu zela adierazi zioten atzokoan Hirzari Nafarroako Bertsozale Elkartetik bertatik; eta saioa nahiko txukuna izan zela, «Leitzako saioan baino maila baxuagoa izan bazen ere, bertso ale poli-

tak entzuteko aukera izan zen», baieztatu zuten. Erratzun Michel Makeo aritu zen hobekien, eta horrek finalerako zuzeneko pasea baliatu zion.

Sailkapeneko bi saioak burrututa, ohi den moduan, Xalto bertsolariaren sorterrria izaki, Goizuetan jokatu den Xalto Sariko finalean izanen diren bederatzi bertsolarien zerrenda argituta gelditu zen, eskuratu zituzten puntuen ariora. Horrela, Leitzako saiotik, Sotorekin batera, Joseba Beltza, Migel Mari Eloseg leitzarra, Oier Lakuntza eta Aritz Saragueta joanen dira; Erratzuko saiotik, berri, Makeorekin batera, Erika Lagoma, Jon Elizetxe eta Iñaki Aleman joanen dira.

XALTO SARIKETAKO FINALA ▶

ABENDUAK 2, GOIZUETAN

- ▶ Julio Soto.
- ▶ Joseba Beltza.
- ▶ Migel Mari Eloseg.
- ▶ Oier Lakuntza.
- ▶ Aritz Saragueta.
- ▶ Michel Makeo.
- ▶ Erika Lagoma.
- ▶ Jon Elizetxe.
- ▶ Iñaki Aleman.

Leitzatik beste bi bertsolarik ere parte hartu dute sariketan, Unai Elizasuk eta Diego Riaño, hain zuzen ere; Elizasuren kasuan puntu erdi bat tarteko, justu-justuan ez da finalean izanen.

Kontuak kontu, beraz, ostiral honetan berean izanen da Xaltoren finaleko saioa, bertso afariarekin eginen ere: Goizuetako Umore Ona elkartean, 21:30ean ekinen diote otorduari eta, ondoren, bertso saioa eginen dute. Bertara joan nahi duenarentzat, txartelak eskuratzeko honako telefono zenbaki hauek jarri ditu eskura Nafarroako Bertsozale Elkarteak: 948 14 37 47 eta 669 15 67 36. Umoreak, giro beroak eta bertso politiek ez dute hutsik eginen Xalton.

LEITZA ▶ UDALA

Bihar eginen dute ohiko batzarra udaletxean

Ohikoez gain, zazpi puntu izanen dituzte eztabaidatzeko eta erabakitzeko mahaian

J. ASTIBIA

Bihar, osteguna, abenduak 1a, 21:00etan hasita ohiko batzarra eginen dute Leitzako udaletxean. Azarokoaren ordainez eginen dute.

Bertan, ohikoak diren «azken batzarreko aktaren onespena», «ohar eta berri emateak» eta «eskari-galderak» delakoez gain, beste zazpi puntu izanen dituzte mahai gainean erabakigai, hezkuntzako, mendiko, hirigintzako eta aurrekontuei dagozkienak guztiak. Aurrena «Haur Eskolako egutegiaren onspena» dute egitekoa, ikasturte honetakoa;

ondoren, «Ibarla, Koskain eta Lerinarte alderdietako loteen balorazio berria eskatzeko proposamena» eztabaidatuko dute; «2005eko aurrekontuen aldaketa» egitea; Hirigintza Planaren aldaketa puntualen behin betiko onspenak, «etxebizitzak lurzoru ez-urbanizagarriari» eta «alde zaharreko etxeen alegazioak» puntuei dagokienez; eta beste bi lur trukaketa, bukatzeko: bata «Migel Antonio Gogortza Zabaletaren lur-trukaketa» eta, bestea, «trukaketa den bidearen kalifikazio juridikoaren aldaketa» hasiera batez onartzea.

LEITZA ▶ KULTURA

Nafarroaren Egunean abesbatzak kantari

Leitzara Etxarri Aranaztik etorriko dira, eta bertakoak hara joanen dira eguerdirako

J. ASTIBIA

Larunbatean Nafarroaren Eguna dela eta, herrialdeko 70 herritan aldi berean musira banda zein abesbatzen emanaldiak izanen direla eman dute jakitera eta, modu horretan, Leitzan ere kontzertua izanen da.

Kasu honetan, Etxarri Aranazko Abesbatza etortzeko da, 13:00etan, udaletzeko batzar aretoan kontzertua eskaintzera. Bien bitartean, Leitzakoak, Asketa abesbatza zehazki, Etxarri Aranaztera joan beharrak dira, ospakizun berean parte hartzera, aurtur trukea egokitu baitzaie.

hitza

txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 30a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

ERAKUSKETAK

Alegia. Ibaialde erakusketak, ibaien kalitateari eta urari buruz. Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara.
Tolosa. Txinara leihoa txoxngilo erakusketak, Aranburu Jauregian, 17:00etatik 20:00etara; asteburuetan, baita 12:00etatik 14:00etara ere.
Tolosa. Palestinari buruzko erakusketak, Kultur Etxean.

HITZALDIAK

Tolosa. Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, Ibon Arrizabalagaren eskutik. Bihar, 19:30ean, Ero-Etxen.
Villabona. Aurora Valdivieso sendagilea gripeaz ariko da Biltoki jubilatutik elkartean. Bihar, 17:00etan.

TITIRIJAI

Tolosa. Alemaniako Erfreulicheren Koloreen erregina, Gorosabelen, 17:30ean; Uruguai-Andaluziako Angeles de Traporen Inolvidable Don Quijote, Kultur Etxean, 18:30ean; Txinako Quanzhouren Illusioaren harira, Kasinon, 22:30ean.

ZINE-KLUBA

Alegia. Contra la pared. 21:30ean, Gaztebtxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza, Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa, Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko Ahotsa magazina: 11:00etan, eguraldia Jose Landarekin, HITZAren errepasoak, albisteak, oharrak...; eskualdeko ekitaldien agenda, iritziak, elkarrizketak, albisteak...; lehiaketa eta disko eskainiak.
18:00-19:00. Iraulitxekin, Gaztesarek prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Zentroaren eskutik.
19:00-21:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).
21:00-22:30. Bide okerretik, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Igerian, malariaren aurka

TOLOSA ▶ Carlos Peñak malariari aurre egiteko erronka solidarioa egingo du larunbatean, Hirukidekoen laguntzarekin; edonork egin dezake igerian harekin



Carlos Peña igerilari tolosarra eta Hirukideko ikasleak eta irakasleak, Jesuitinetako jolaslekuan, ekimena aurkezten. HITZA

LEIRE MONTES

Carlos Peña igerilariak martxan du dagoeneko bere hurrengo egitas-moa. Kasu honetan, igeriketa erronka baino «erronka solidarioa» dela azaldu du tolosarrak. Izan ere, Afrikan malariari aurre egiteko dirua biltzea du helburu ekimen berriak. Eta horretarako, gainera, ez da bakarrik ariko: Hirukide ikastetxearen laguntza izango du, bai antolaketa lanetan eta baita

erronkaren egunean bertan ere.

Hain zuzen ere, larunbatean, abenduaren 3an, Peña bera, Hirukideko haur, gazte, irakasle eta gurasoak, eta nahi duten herritar guztiak igerian ariko dira, Tolosako Usabal kiroldegian, 16:00etatik 20:00etara.

Nola sortu zen, bada, ekimena? «Malaria da mundu osoan haur gehien hiltzen duen gaitxotasuna. Pentsa, egunean 7 junbo hegazkin bete haur hiltzen da mundu osoan, 30 se-

gundoro haur bat. Horri aurre hartzeko, World Swim for Malaria (www.worldswimformalaria.com) Erresuma Batuko elkarrekin mundu osoan miloi bat pertsona jarri nahi ditu igerian. Eta Tolosa ere bat egin nahi izan dugu ekimenarekin», azaldu dute antolatzaileek.

Eta, horrela, igeri egitearekin batera, «diru apur bat ere uztea» ona litzatekeela diote. Hala, Carlos Peñak eta Hirukide ikastetxeak jende gutxia gonbidatu nahi dute egun soli-

dario horretan elkarrekin parte hartzea.

Nola? Usabalen bertan salgai jarri dituzte jada larunbatean igeri egin ahal izateko txartela. 2 euroren truke, edonork izango du aritzerik, eta malariari aurre egiteko ekimenean parte hartu. Familia gutzirako txartelak ere jarri dituzte salgai, 6 eurotan. Jasotako diruarekin eltxoen aurkako lotarako sareak erosiko dira. «Animatut! Larunbatean Usabalen ikusiko dugu elkar!».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aratz Alkain Gorostidi. Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik, bereziki osaba Josebak.



URTE ASKOAN
Zorionak, Miren. Familiaren partetik muxu handi bat.



URTE ASKOAN
Ander Zubillaga Otermir (Berastegi). Abuztuan 7 urte eta gaur zure eguna. Ondo pasa, Muxu handi bat.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberririk... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!